

## INFORMAZIO-OHARRA

### **PROBAK URRIAREN 23AN, OSTEGUNEAN, EGINEN DIRA IRUÑEKO BASOKO BHI-an.**

Izangaiak Basoko BHI-an agertuko dira 15:40an, NAN fisikoa eta bolaluma aldean dituztela. Programatu ezin daitezkeen kalkulagailuak ekar daitezke.

#### **1. PLIKAK**

Zuzenketan anonimotasuna bermatzeko, ikasle bakoitzari identifikazio zenbaki bat esleituko zaio, aldiro oroitu beharko duena. Zenbaki hori jarri beharko du azterketa orrialde guztien goialdeko eskuinean.

Halaber, ariketa bakoitzaren orri bakoitzari zenbakia paratuko zaio behealdeko erdian, orri zenbakia adieraziz guztirako orri kopuruari dagokionez. Adibidea: 1/3; 2/3; 3/3.

#### **2. EGIN BEHARREKO PROBAK**

##### **Lehendabiziko zatia (bi ordu izanen dituzte egiteko)**

– Gaztelania eta Literatura edo Euskal Hizkuntza eta Literatura, ikaslearen hizkuntza ereduaren arabera. Testu baten azterketa eta iruzkin kritikoa, eta hizkuntzari edo literaturari buruz planteatzen diren galderen erantzunak.

– Matematika: galderei erantzun beharko zaie eta/edo ariketa praktikoak ebatzi eta/edo problemak ebatzi.

**Atsedena: 30 minutu**

##### **Bigarren zatia (ordu bat izanen dute egiteko)**

– Atzerriko hizkuntza: ikasi duen atzerriko lehen hizkuntzaren testu bat eman eta ulermeneko eta idatzizko adierazpeneko atazak bete beharko dira.

#### **3. ERREKLAMAZIOAK**

Kalifikazioak <https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/Premios-Extraordinarios-de-Educacion-Secundaria-Obligatoria> web orrian argitaratuko dira urriaren 31an.

Azterketa egin duten ikasleek, beren gurasoek edo legezko ordezkariak erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte, idatziz, lortutako azken kalifikazioaren kontra, eskabidea epaimahaiko buruari bidaliz, bi egun balioduneko epean, kalifikazioak lehen aipatutako web orrian argitaratzen diren egunetik hasita.

Erreklamazioak ebatzitakoan, azken notak leku beran jarriko dira ikusgai.

#### **4.- INSTALAZIOETARAKO SARBIDEA**

Institukurako sarbidea horrela izanen da: 15:40an epaimahaikideak institukurako sarbideko atean kokatuko dira sarrera kontrolatzeko. Institutuko patioan izangaiek zein geletan egon behar duten zehazten duten lau zerrenda kokatuko dira.

Izangaiek patioa eskuinalderantz joanen dira eta dagokion gela zenbakiarekin bat datorren txartelaren parean kokatuko dira. Epaimahaikideak bertaratuko dira, ikasleak dagozkien gelara bideratu eta lagunduz.

Froga aurretik ez dira ikasleak banan bana deituko; ikasleen identifikazioa gelan bertan gauzatuko dute epaimahaikideek. Hori dela eta, ikasleek NAN fisikoa eraman eta mahai gainean utzi beharko dute.

#### **5.- IRTEERAK ETA KOMUNEN ERABILERA**

Epaimahaikideek froga bukatu duten ikasleriari irteera emanen diote, banan bana.

Komunerako sarbidea ere epaimahaikideek emanen dute; banan bana eta behin froga bukatu eta gero.

Froga bat eta bestearen artean 30 minutuko atsedena egon da. Denbora tarte horretan ikasleriak institututik ateratzeko aukera izanen du. Ikastetxean geratzekotan, patioan geratu beharko du. 30 minutu igaro eta gero, epaimahaikideek berriz ere sarbidea emanen diote ikasleriari bigarren froga egiteko.